




FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
14/05/2025



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
14/05/2025

2025EKO OTSAILAREN 26AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko otsailaren 26n, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Jabier Auza, Micaela Elizalde, M^a Mar Ansorena, Iker Isiegas eta Alaia Etayo.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDAA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Urtarrilaren 29ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak

- 2025/6 alkate ebazpena Beramendiko 2. Poligonoko 5. Lursailean dagoen etxebizitzaren teilatua berritzeko ora baimena 20.939,49 euroko aurrekontuarekin.

-2025/7 alkate ebazpena obra baimena onartuz Berueteko Apezteguia bordako barruko paretak moldatzeko, obra honen aurrekontua 3622,50 eurokoa da.

-2025/8 alkate ebazpena, onartuz Eneko Iurramendi Alemani Luzia Goñi Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzea urtarrilaren 25 eta 26an zerri hiltze lanak burutzeko

-2025/9 alkate ebazpena onartuz Xabier Mercero Bizkaik egindako eskaera eta hortaz baimena ematea otsailaren 16an egun osoz, Luzia Goñi Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko "ikusmen naturala-ren inguruko tailerra egiteko.





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
14/05/2025



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
14/05/2025

- 2025/10 alkate ebazpena onartuz Onartzea Ariane Usarbarrena Euskara Teknikariak egindako eskaera Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko otsailaren 10ean arratsaldeko 18:30etatik 19:30etara mintzakide tailerra egiteko.

- 2025/11 alkate ebazpena onartuz Fernando Marculeta Aranak aurkeztutako eskaera Igoako 9. Poligonoko 83. Lursailean etxebizitza egiteko aipatutako ordenantzaren arabera eta hortaz 4.359.98 euroko laguntza onartzea.

-2025/12 alkate ebazpena onartuz Rosa Sanchez Margaritek 2023. urteko zirkulazio zerga epeka ordaintzeko aurkeztutako eskaera, 196.50 euro guztira.

-2025/13 alkate ebazpena onartuz Jose Garate Baldak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea NA 3641 AT matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

- 2025/14 alkate ebazpena onartuz Ibai Iriarte Ariztimuñok aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea NA 7432 AX matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

- 2025/15 alkate ebazpena onartuz Elena Alsua Arreguik aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea 3967 MVC matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea

- 2025/16 alkate ebazpena onartuz Aralar Musika Eskolak egindako eskaera eta hortaz baimena eman, martxoaren 19an 14:30etatik aurrera Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko.

- 2025/17 alkate ebazpena onartuz Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak aurkeztutako eskaera eta baimena eman martxoaren 14an, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko 18:30etaik 21:30etara indarkeriaren inguruko saio bat burutzeko.

-2025/18 alkate ebazpena onartuz Alejandro Eiguren Rivak aurkeztutako zirkulazio zergaren hobari eskaera, eta onartzea 7639 MWF matrikuladun autoaren zirkulazio zergaren hobaria %50ekoa izatea.

-2025/19 alkate ebazpena onartuz baimena ematea Laura Martinena Espinali Aizarotzko Luzia Goñi kultur etxeko erabilera anitzetako gela erabiltzeko, Aizarotzko Herriko Plaza 1 helbideko jabeen elkargoaren bilera burutzeko, otsailaren 9an 11:30etatik aurrera.

- 2025/20 alkate ebazpena onartuz taxi baimenean 8 eserlekudun, 7775 MYG Mercedes Benz 3 QV matrikuladun autoa sartzea.

-2025/21 alkate ebazpena onartuz M^a Gloria Oronoz Huarte 15657962 E NAN zenbakia duenari aparkatzeko elbarriadako txartela ematea.

- 2025/21 alkate ebazpena Aranzazu Prieto Lopezek aurkeztutako eskaera eta hortaz onartzea Aizarotzko Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzea otsailaren 8an, martxoaren 7an eta 8an jantoki bezala erabiltzeko.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
14/05/2025



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
14/05/2025

3.- Mozioak

Ez dago moziorik.

4. - Batzordeen informazioa.

Euskara Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Otsailaren 19an Iparraldeko Euskara Mankomunitateko bilera burutu zen, bertan 2025eko aurrekontua eta 2024ko aurrekontu aldaketak behin betikoz onartu ziren. Ultzamako ordezkariak mahai gainean utzi zuten eskualdeko euskara teknikari berriaren kezka lanaldiaren zati haundi bat itzulpenak egiten pasatzen zelako horien artean Pulunpe aldizkariarenak. Horren inguruan bilera bat egingo da eskualdeko ordezkari eta teknikariarekin.

Euskararekin lotuta dagoenez Santos Etxegia alkateak adierazten du UEMAko teknikariarekin eta euskara teknikariarekin bilera izan zuela, eskualdean burutzen ziren ekintzak aztertzeko, adierazten du ere horietako batzuk Ultzamako ikastetxean egiten direla nahiz eta berau UEMAko kide ez izan eta hori aztertu beharko litzakeela.

Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Euskaraldiaren garaian ekimenak burutzeko bilera egin zen Basaburua eta Imotzko ordezkariarekin martxoaren 11n. 4 ekimen burutuko dira, 2 udalerrri bakoitzean, Basaburuaren kasuan Ene Kantaren ikuskizuna eta monologo bat.

Gainera ere bailara mailan euskararen inguruan erreferente bi udal bakoitzetik izendatu behar dira Euskaraldiko kanpainako argazkietan agertzeko eta eragile lanak burutzeko.

Otsailaren 27an ikastaro bat egingo da eskolan.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

2024ko kontuak prestatu dituzte eta Basaburuari ordaintzea tokatzen zaiona 4682 euro dira. Gartzarongo pilota txapelketa Gartzarongo Elkartearen laguntzarekin antolatzen da eta horren gastua kirol batzordeak ordaintzen du. Lehenik 1900 euro inguruko gastua izan zuela adierazi zuen elkartearen baina kontutan hartua diru laguntza jasotzen dutela gastua 900 euro ingurura jeitsi dute.

2025eko aurrekontu ere prestatu dute 24.650 eurokoa eta bertan sartuko dira ekintza bezala, BTT, Enduro, pilota txapelketa eta beste... Basaburuko ekarpena 6700 eurokoa izatea aurreikusten da.

Ekainaren 14an sega txapelketaren jardunaldi bat burutuko da urtero bezala, kasu honetan Etxalekun.





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
14/05/2025



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
14/05/2025

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Oihanzabal ikastetxeko eskola kontseilua burutu da, bertan zuzendariak kezka adierazi zuen hurrengo ikasturterako ume gutxiago aurreikusten direnez, bi talde egongo liratekelako. Aldiz Imozko bailaran dauden guraso talde batek Oihanzabal ikastetxera haien haurrak eramateko ilusioa lukete gauzagarria izango balitz. Begiratu beharko litzateke gai hau bi udalen artean, udalek horren apustua egingo balute hezkuntzak jartzen ez duen garraioa zati batean finantziatuz adibidez...

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Alde batetik Basaburuko Gizarte Batzordeak eskatuta Nafar Gobernuan bilera burutu da Sasturain etxeko obren inguruan eta falta direnak hurrengo diru laguntza deialdia sartzeko aztertze eta bestetik behin obra bukatua dagoenean eguneko egoitza martxan jartzeko pausoak zeintzuk diren jakiteko.

Obraren inguruan Nafar Gobernuak ongi ikusi zuen 200.000 euroko ekarpenean sartu ezin diren obrak 2025eko laguntza deialdiak sartzea, gainera baremazioan puntu asko lituzke udalak eta aukera ia denak laguntza eskuratu ahal izateko.

Bestetik egoitza martxan jartzeko ze dokumentazio aurkeztu behar den adierazi zuten bileran eta bileraren ondoren bidalitako emailean.

Ogasun Batzordea. Micaela Elizalde ematen du informazioa.

Biderkari ordenantza fiskalaren zirriborroa egiteko eskatu zaion eta oraindik ez dute prestatu, martxoaren bukaera arteko epea eman zaie aurkezteko, ondoren batzordeak landu ahal izateko.

5.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

Errepide Ataleko ordezkariekin bilera burutu da Jaunsaratsko eskolako zaborren gunea zolatzeko, trabesian zehar abiadura murrizten duten elementuak jarri, Apeztegi berriko dendaren parean aparkalekua egin eta oinezkoendako zebagunea jartzeko proposamenaz hitz egiteko. Ongi ikusi dute obra eta baiezko txostena egingo lukete PIL programan sartu ahal izateko.

Elikadura mahaian erabaki zen aurreko urtetan egiten diren azoka ibiltarien kopurua txikitzea urtean 5 eginaz eta txandakatzea urtez urte bailara guztiak sartzeko. Basaburuaren apustua urtero egitea dela adierazten du, azoka ibiltariaren baitan edo kanpo udalak antolatuta.

Nilsarekin bilera egin zen Beramendiko industriaguneko ur zikinak, herrira konektatzeko obra haiek egin dezaten eskatzeko. Ez zuten baztertu baina ez dagoela haien lehentasunen artean. Proposamena idatziz bidaliko zaie haiek kontutan hartzeko.

Kontzejuen bilera egin zen, ura, zirkulazio zerga eta administrari gastuen aurkezpenera egiteko. Adierazi zitzaizkien alkateei PIL programa argitaratu zela eta bi hilabeteko epea zutela memoriak aurkezteko. Basaburuko eguna herriz herri egingo denaren nahia dagoela adierazi zitzaizkien ere... 2025 urtean Aizarotzek ez duenez bertan egin nahi





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
14/05/2025



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
14/05/2025

Berueten burutuko dela adostu zen. Rogaine proba egingo denaren informazioa ere eman zitzaien, antolakuntzarako bolondresak behar direnez bakoitzak bere kontzejuan zabaltzeko.

Despopulazioaren bilera egin zen Irurtzunen NUFK-ek deitua. Hainbat gai landu ziren mahai desberdinetan, etxebizitza, garraioa eta beste.. Atera ziren emaitzekin txosten bat prestatuko da.

NUFK-ek Aizarotz kontzeju izendatu denez horren inguruko erreportaia argitaratuko du haien aldizkarian.

Beramendiko industriagunean nekazaritza nabea egiteko obra baimena onartu zaio sustatzaileari.

Alkateen itunaren baitan, Basaburuko udalak aurreko urtetatik egindako obrekin %13.9an murriztu ditu ingurugirako isuriak.

Udaleko bigarren pisuan dagoen etxebizitzetako bat libre utzi du egungo errentariak eta alokairu sozialean aterako da, eskaerak aurkezteko epea apirilaren 7an bukatuko da.

Xaloa telebistan Basaburuan bizikletarekin ibili ahal diren xenden inguruko erreportaia egin da.

6. Erregu-galderak

Alaia Etayok galdetzen du nola dagoen udal plan berriaren dokumentua, alkateak azaltzen du hemendik gutxira aurkeztuko duela arkitektoak, azkeneko egunetan elizaren ondasunak dotazional moduan jartzeko prozesua egiten aritu da.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:20 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.

